

B ALDER **P** LAKA

Gure produktua, Balder plaka deiturikoa, argi naturala eta temperatura erregulatzen dituen xafla da. Produktu honek erosotasuna bermatzen du; izan ere, argia erregulatzen duenez, zure etxean nahi duzun argia jarri dezakezu. Alde batetik, kanpoaldetik sartzen dena baino gehiago behar bada, etxeko argiak piztuko dira; bestalde, kanpoaldeko argia nahi duguna bada, barruko argiak itzalita geratuko dira, ekonomikoki lagungarria dena. Gainera, xaflak temperatura erregulatzen eta kontrolatzen du, izan ere, temperatura erregulatzen duenez, zure etxea nahi duzun tenperaturan mantenduko da

Halaber, ekologikoa dela esan dezakegu, eguzki plakei esker, elektrizitatearen kontsumoa murrizten baita.

Bestetik, oso eraginkorra dela ziurtatu dezakegu; izan ere, pertsianak kendu daitezke %100eko iluntasuna bermatzen duelako, eta kontrari, gure etxea argitu behar dugunean %100eko argia sartzen delako.

Gainera, zure mugikorretik, edo nahi izanez gero, mando txiki batekin, argia ere erregulatu daiteke nahi dugun modura.

Azkenik, produktu hau ingurumenarekiko ardua duten pertsonentzat zuzenduta dago, baita argindarraren fakturaren prezioa murriztu nahi dutenentzat ere. Kristal-fabriketekin kolaborazioa eginez, bezeroak gure plaka eros dezakete leiho guztia aldatu gabe eta bi orduko obra txiki baten bidez.

Argazki honetan ikus dezakezue gure produktuaren "anagrama":



Hemen ikus daiteke gure produktuaren bozetoa, grisez adierazita dago ezberdintzeko. Nolanahi ere, esan dugun bezala, gardena edo opakoa izan daiteke argiaren arabera.

